



Abiadura Handiko Trenaren etorkizuna izan dute hizpide gaur Bilbon, Euskal Herriko Unibertsitatearen udako ikastaroak direla eta. Arratsaldean, hitzaldi bati ekin diote, eta, hizlarien artean, LABeko idazkari nagusi ohi Ainhoa Etxaide egon da. Proiektua beharrezkoa ez dela ohartarazi du sindikatuko ordezkariak.

EKOPOLEk, EHUko Ekonomia Ekologiko eta Ekologia Politikorako Ikerketa taldeak, AHTri buruzko lan bat egin du, LABek eta ELAk eskatuta. [“Euskal Y-a: irtenbide gabeko atakan”](#); da txostenaren izenburua, eta azterketa honen ondorioei buruz hitz egin du Ainhoa Etxaidek arratsaldeko saioan, [joan den otsaila hasieran txostenaren aurkezpen agerraldian](#) nabarmendutako argudioei helduta.

Etxaideren hitzetan, "lehentasuna ezin da izan abiadura, onura soziala baizik"; eta, zentzu honetan, azpiegiturak ez duela printzipio hori betetzen azpimarratu du, beharrezkoa ez delako.

Hain justu, AHTak ez dituela garraio arazoak konponduko esan du, eta, gainera, izugarritzko kalte ekonomiko, sozial eta ingurumenezkoak eragingo dituela; onura sozialik, berriz, ez du ekarriko.

LAB eta ELAren ekimenez osatutako azterketa [Eusko Legebiltzarrean erregistratu genuen](#) ekaina hasieran. Hala, talde politikoen eskura utzi genuen txostena. Gaur txostenaren egileetako batzuk hartu dute hitza; Roberto Bermejok eta David Hoyosek, kasu.

—